

ASKATASUN EGUNEKO HITZALDIA

Aurten legazpiarrok **urteurren berezia** bizi dugu, ez nolanahikoa. Ez zen besterik gabe pasatzen uzteko urtea. Izañ ere, 1608. urtean Legazpik, 224 urtez Seguraren menpe egon ondoren, askatasuna berreskuratu zuen. Eta ez hori bakarrik, “villa” izaera lortu zuen eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan eserleku bat

Askatasuna ez zen zerutik etorri, hala behar zuelako. Beti bezala, borroka luze baten ondorioz etorri zen eta ordainduz, gainera. Ondo kostata, alegia.

Legazpiarren askatasun egarriarekin bat egin zuen **XVII. mendearen hasierako giroak**, eta legazpiarrek ondo baino hobeto baliatu zuten hori. Aldeko faktoreek bat egin zuten Legazpiko nahiarekin, hala nola: Batzar Nagusietan Donostiako hiribilduak Legazpiren alde azaldu zuen jarrera; Ogasuneko Kontseiluan eta Kontaduria Nagusietan Cristobal de Ipenarrieta legazpiarraren bitartekaritza; eta, azkenik, Gaztelako Ogasun Kontseiluaren diru-premia. Horri gehitu behar zaio Ogasun Kontseiluak Pedro Sanchez Collado epailea izendatu zuela Errege Agindua betearazteko eta doktoreaz adore handiz bete zuela eginkizuna, bere bizitza ere arriskuan jarriaz.

Eta lehen esan dudan bezala, Legazpik Hiribildu **titulua ordaindu** egin behar izan zuen: bizilagun bakoitzeko 20 dukat eta bi eskribauen truke 600 dukat. Herri-sailak saldu behar izan zituen dirutza hori eskuratzeko.

Azkenean, Legazpik, aspaldiko nahia lortu zuen eta aldi berri bati ekin zion. Atzoko liburu aurkezpenean ondo adierazi zen bezala, ordea (“Eliza Legazpiko historian”), 1608. urtean ez zituen Legazpik morrontza guztiak hautsi. Izañ ere, Legazpiko elizak, Lazkano Etxeari eta Segurako elizari lotuta jarraitu baitzuen XVIII. mendearen bukaera arte. Horren ondorioz, Legazpiri zegozkion diru iturri handi batek ihes egiten zuen kanpora.

Hori, ordea, beste kontu bat da, eta guk, orain, 1608ko askatasuna gogoratu nahi dugu, sekulakoa izan zelako.

Askatasunaren ondorioz, lehen esan dudan bezala Legazpiren ahots propioa entzuten hasi zen Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta, horrekin batera, **berrikuntzak** etorri ziren Legazpira: Kontseju-etxea egin zuten orain Euskal Herria plaza dagoen lekuan (1927. urtean eraitsi zuten) eta udal ordezkarriak izendatu ziren; urkamendia jarri zuten Alegia izeneko parajearen, Almirante Bikuña auzoa dagoen lekuan (garai hartan alkateak epaile lanak ere egiten baitzituen); armen alardeak Legazpin arazorik gabe egiten hasi ziren; eta abar.

Bada, hori guztia gogoratu nahi dugu aurten, 400 urte pasa eta gero. Jakin behar dugulako nondik gatozen eta zer izan garen, etorkizunari begira. Horregatik, IV. Mendeurren honen **helburu bat** hori izango da, gure iragana ezagutzea eta ulertzea. Baino ez da bakarra izango. Aldi berean, beste helburu batzuk lortzeko ere erabili nahi dugu, esate baterako: Goierriko gainontzeko herriekiko loturak sendotzea eta legazpiarren arteko auzo-lana bultzatzea.

Lehenengoari dagokionez, adierazi behar dut ez dugula sesiorik berritu nahi ez Segurarekin ez eta beste inorekin, bakarren batek hala uste badu ere 400 urte

hauek ospatzen ditugulako. Guztiz besteraka, **harremanak sendotu** nahi ditugu Goierriko herri horrekin eta gainerakoekin, Legazpi betidanik Goierriko herria izan delako. Antolaketa politikoan, harreman ekonomikoetan, ohituretan, hizkeran... goierritarrak gara. Prest gaude beraz etorkizunean sor daitezkeen egitasmo komunetan parte hartzeko, berezko bidea hori dela iruditzen zaigulako.

Gure eskua zabaltzen dugu, beraz, jaknik gaurkoa oso egun aproposa dela horretarako.

Aitatutako beste helburua, berriz, **auzo-lana** bultzatzea da. Talde lanean jardunez gero, indarrak biderkatu egiten dira eta aurrez pentsaezinezko emaitzak lor daitezke. Horren adibide garbia dira aurtent, IV. Mendeurrenaren barruan, egiten ari diren hainbat ekintza: Domingo Agirreko haurren antzezpena, Armen Alardea, Bertso Olarien emanaldia, Ilinti elkartearren Stock azoka, urriaren 4an herriko taldeek egingo duten ikuskizuna, urriaren 12ko mendi-martxa eta abar.

Bukatzeko, ez nuke nire hizketalditxo hau bukatu nahi, IV. Mendeurreneko ekitaldiak antolatzen ibili diren **herritarrok eta taldeak eskertu** gabe. Hori dela eta, lehenik eta behin, eskerrik asko urtean zehar hainbate bilera eta lan egin duzuen batzordeko kideei. Zuen lana funtsezkoa izan da aurtengo egitarau oparoa aurrera ateratzeko. Eskerrik asko, halaber, hainbat ekitaldi antolatzen ibili diren talde eta herritarrei. Ez noa, orain, izenik aipatzera, beti bakarren bat kanpoan uzteko arriskua dagoelako, eta dut inor mintzerik nahi.

Eta, gaurko egunean, eskerrik asko, Legazpira etorri zareten agintari guztioi, jabetu zaretelako egun honek legazpiarrentzat duen garrantziaz eta guretzat babes hori oso garrantzitsua delako. Mila esker denei.

Este año celebramos un acontecimiento especial, de los que no se pueden dejar pasar. Hace 400 años, Legazpi volvió a recobrar su libertad, después de 224 años bajo el dominio de Segura, además consiguió el título de “villa” y un asiento en las Juntas Generales de Gipuzkoa.

La desanexión no llovió del cielo, porque sí. Como es habitual, vino después de una larga lucha política y después del pago de una importante suma de dinero.

Las circunstancias históricas de comienzos del siglo XVII ayudaron a que las ansias de libertad de los legazpiarras tuvieran como resultado la desanexión, que supieron aprovecharlas al máximo. Hay que destacar tres de ellas: la postura favorable a la desanexión mostrada por Donostia en las Juntas Generales; el trabajo de mediación realizado por el vecino legazpiarra Cristóbal de Ipenarrieta, Consejero y Contador Mayor de Felipe III; y la necesidad de fondos económicos del Consejo de Hacienda, a las cuales hay que añadir, el nombramiento de Pedro Sanchez Collado como Juez de Comisión de Su Majestad para ejecutar la Real Orden, el cual no titubeó un sólo momento en cumplir su cometido, hasta el punto de poner su vida en peligro.

Como he mencionado, Legazpi tuvo que pagar por la desanexión y por la adquisición del título de villa. Fueron 20 ducados por cada vecino más 300 ducados por cada una de las dos escribanías que le correspondían. No tuvimos más remedio que vender terrenos comunales para conseguir dicha suma.

Al final, Legazpi consiguió su objetivo y pudo comenzar una nueva etapa, aunque, bien es cierto que no rompía todavía con todas sus dependencias, tal como se indicaba ayer en la presentación del libro “La Iglesia en la Historia de Legazpi”. La iglesia de Legazpi seguiría aportando fondos hasta finales del siglo XVIII tanto al Señor de Lazcano como al Cabildo Parroquial de Segura. Pero, ese es otro tema, y nos centraremos en la desanexión de 1608, que supuso toda una hazaña para Legazpi.

Gracias a la desanexión, se empezó a escuchar la voz de Legazpi en las Juntas Generales de Gipuzkoa, y comenzaron los cambios en el pueblo: se erigió la primera casa consistorial (desaparecida en 1927) en frente de la actual; se nombraron los primeros representantes municipales; se colocó una picota en el lugar de Alegría, actual barrio de Almirante Bikuña (en aquella época era el alcalde quien impartía la justicia); se comenzaron a realizar los alardes en Legazpi, en paz, sin intromisiones de Segura; etc.

Hoy, después de 400 largos años, queremos recordar toda esta parte de nuestra historia, porque para cimentar nuestra identidad y construir un futuro es importante saber quiénes somos y de dónde venimos. Por este motivo, uno de los objetivos que planteamos con este acontecimiento es conocer y entender nuestro pasado. Pero no es el único. También nos hemos marcado otros, dadas las posibilidades que nos brinda este año. Son los siguientes:

- Fortalecer las relaciones con los pueblos del Goierri.
- Impulsar el trabajo en equipo.

En cuanto al primero de ellos, tengo que señalar claramente que no queremos renovar nuestras rencillas ni con Segura ni con ningún otro pueblo con motivo

de esta celebración. Al contrario, queremos fortalecer nuestras relaciones con todos los pueblos del Goierri, porque Legazpi es parte y siempre lo ha sido de dicha comarca. Somos goierritarras en nuestras relaciones políticas y económicas, en nuestras costumbres, en nuestro lenguaje... Con lo cual, queremos ofrecer nuestra mano para avanzar en proyectos comunes, porque es lo natural.

El siguiente objetivo, tal como hemos apuntado, es fomentar el trabajo en equipo o auzolan, porque se multiplican enormemente nuestras posibilidades y podemos lograr metas insospechadas. Claros ejemplos de lo que digo son las actividades que se están desarrollando en este mismo Centenario: la representación de la desanexión por parte de los alumnos de Domingo de Agirre, la actuación de los bersolaris el día 4 de mayo, el alarde de armas, la feria de oportunidades de Ilinti, el festival de los grupos legazpiarras que se celebrará el próximo día 4 de octubre, la marcha montañera del 12 de octubre, etc. Ese es el camino para conseguir un pueblo vivo.

Por último, no quisiera terminar esta pequeña intervención sin agradecer a todos los ciudadanos, ciudadanas y asociaciones que han trabajado en la organización de los actos del IV. Centenario. Agradecer, en primer lugar, a todos los miembros de la Comisión del IV. Centenario, por el trabajo que estáis realizando. En segundo lugar, a todas las asociaciones involucradas en diferentes actos. No mencionaré nombres, porque temo dejar alguno fuera y no quiero herir a nadie.

Y, como no, en el día de hoy, quiero agradecer a todos los cargos políticos que habéis venido a Legazpi, por aceptar nuestra invitación y participar de un día tan grande para los legazpiarras. Eskerrik asko denoi.